



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA				
GAI-ZERRENDATA		Eguna	2023/01/17	Ordua	10:00	
DEITUAK		Yolanda, Asier, Nerea, Maite eta Josu.				
Gaia		Edukia		Arduraduna		
1	KP PROPOSAMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proposamena aurkeztu dugu.</li> <li><b>KP 2023:</b></li> <li>- Bileretan erabiltzen diren hizkuntzen neurketak egiten hasiko gara. Barruko bileretatik hasi gaitzke, errazena da.</li> <li>- Neurketak egiten jarraituko dugu.</li> <li>- Aurten ere, Euskara Saiok egingo ditugu.</li> </ul>			Elhuyar eta LHK	
2	ZERBITZU HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gure hornitzaileekin ditugun harremanetan (idatzizko mezu laburretan behinik behin) bi hizkuntzen erabilera bermatzen saiatuko gara.</li> <li>Hasteko, hornitzaileen zerrenda osatuko dugu, eta bakoitzarekin erabiltzen dugun hizkuntza zein den ikusi.</li> </ul>			Josu eta Nerea	
3	EUSKARA SAIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Noiz? lazko lehenengoa apirilaren 7an izan zen... Opor ondoren egingo dugu. Data zehaztuko dugu.</li> <li>Besteak beste, <b>BIKAINen aurkezpena</b> egingo dugu.</li> </ul>			Maite eta Josu	
4	HURRENGO FORMAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Noiz? <b>Martxoan edo maiatzean.</b></li> <li>- Gaia? <b>Hizkuntza inklusiboa</b> aipatu du batzordekide batek. Agian, kanpotik etorri daiteke norbait ikastaroa ematera.</li> </ul>			Maite eta Josu	
5	BULETINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurten, formatu berria</li> <li>- Noiz? lazko lehenengoa otsailean izan zen.</li> <li>- Gaiak? Bat izan liteke <b>AHOTSAK.eus-eko beste testigantza bat... Gipuzkoako euskaldun batena.</b></li> <li>- <b>Formakuntzaren iragarpena egitea.</b></li> <li>- Zutabea: <b>Josuneri proposatuko diogu.</b> Gaia berak aukeratuko du.</li> <li>- BIKAIN.</li> </ul>			Euskara Batzordea	
6	ALEXI EGINDAKO ELKARRIZKETA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2020 urtearen hasieran Alexi Bizkaia Irratian egindako elkarrizketa osorik transkribatu du Josuk.</li> </ul>			Josu	



		<ul style="list-style-type: none"><li>- Webgunean jarri genezake. Josuk Yolandarekin adostuko du.</li></ul>	
7	<b>BIKAIN</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ekainean BIKAIN simulazioa egingo dugu.</li><li>- Komeni denez lankideei honen berri ematen hastea, <b>aurkezpena apirileko Euskara Saioan egingo dugu.</b></li></ul>	Maite eta Josu

**HURRENGO BATZORDEA: Otsailaren 21ean, 10:00etan.**



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA			
GAI-ZERRENDA		Eguna	2023/02/21	Ordua	10:00
DEITUAK		Yolanda, Asier, Nerea, Bego, Maite eta Josu.			
Gaia		Edukia		Arduraduna	
1	<b>BILEREN SEGIMENDUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bileretan erabiltzen den hizkuntzen neurketa egingo dugu.</li> <li>- Barruko batzarren hizkuntza erabilera neurtzen hasiko gara.</li> <li>- Excel-orri bat prestatu dugu, betetzeko oso erraza.</li> <li>- Josuk orri fisikoa izango du, eta berari eskatu beharko zaio.</li> <li>- Urte bukaeran datuak aurkeztuko ditugu.</li> </ul>		Maite / Josu	
2	<b>ZERBITZU HIZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hornitzaileen zerrenda; zein hizkuntza erabiltzen dugu bakoitzarekin?</li> <li>Zerrenda hurrengo batzordera ekarriko dugu.</li> </ul>		Nerea	
3	<b>EUSKARA SAIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Apirilaren 21ean egingo dugu.</li> <li>- <b>BIKAINen aurkezpena</b> egingo dugu eta trebakuntza egingo dela aipatuko dugu.</li> <li>- Hurrengo batzorderako, alde ludikoaren proposamena ekarriko dugu.</li> </ul>		Maite / Josu	
4	<b>HURRENGO FORMAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Maiatzean egingo dugu.</b></li> <li>- Gaia? <b>Hizkuntza inklusiboa.</b></li> <li>- <b>Maitek proposamena azaldu du. Nola komunikatzen garen hausnartzeko trebakuntza proposatu du.</b></li> <li>- Euskara Batzordeko kide batek idatzizko komunikazioa ere sartu daiteken galdetu du. Biak uztartu daitezke: hitzik gabeko komunikazioa eta idatzizkoa. Erdi eta erdi egingo dugu.</li> </ul>		Maite	
5	<b>BULETINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Datorren astean argitaratuko dugu.</li> <li>- Formatu berria erabiliko dugu.</li> <li>- Formatuari eta irudiari lotuta, proposamenak egin dira.</li> <li>- Maitek aldaketak egingo ditu, eta azken bertsioa Josuri bidaliko dio.</li> </ul>		Maite / Josu	

6	MAKUILUA	<ul style="list-style-type: none"><li>- BOST MINUTUKO IKASTAROA oinarri hartuta, "pilula" digitala sortu dugu.</li><li>- Astero eguneratuko da.</li><li>- Josuk zabalkundea egingo du.</li></ul>	Maite / Josu
---	----------	--	--------------

**HURRENGO BATZORDEA: Martxoaren 21ean, 10:00etan.**



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA			
GAI ZERRENTA		Eguna	2023/03/21	Ordua	10:00
DEITUAK		Yolanda, Nerea, Asier, Maite, Bego eta Josu.			
Gaia					
1	BILEREN SEGIMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Jarraipena</b> Oraindik ez dugu bilera formalik izan. Suertatzen denean, Josuri erregistro-orria eskatuko diogu. Agian komeni da berriz gogoratzea.</li> </ul>			Denok
2	ZERBITZU HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hornitzaileen zerrenda: zein hizkuntza erabiltzen dugu bakoitzarekin?</b> Nereak zerrenda ekarri du. Alde batetik, hornitzaileak, eta bestetik, profesionalak. <i>DERTEN, ACTUALIZA, ATTEST, LOGIC, GRUPO SOLITIUM...</i> Zenbait hornitzaileekin Nereak ez dauka harremanik. Marta eta Javik, adibidez, harreman zuzena dute batzuekin (Josuk galdetuko die). Zerrenda osatuko dugu, hornitzaile bakoitzak LHK-ko zein lankiderek duen harremana gehituta. Ondoren, hizkuntza ere jarriko dugu. Honek erregistro bat eta mapa bat emango dizkigu, eta aurrerago baloratuko dugu zelan eragin.</li> </ul>			Harremana dutenak
3	EUSKARA SAIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaur egungo egoera azalduko dugu: oraindik ez dakigu simulazioa zelan egingo dugun. Jaurlaritzatik aldatetak datoz eta aldateta hauek zuzenean eragiten digute. Informazio gehiago daukagunean baloratuko dugu zelan egin, baina, formatu batean edo bestean, egin egingo dugu. BIKAIN zer den azalduko dugu; funtsean, azalpen orokorrak ez du aldatetarik izango Maiatzeko formakuntza aipatuko dugu.</li> <li>- Alde ludikoa Maitek eta Josuk landuko dute.</li> </ul>			Maite eta Josu
4	HURRENGO FORMAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maiatzaren 18an egingo dugu. 12:00etatik 13:30era.</li> </ul>			Maite
6	IVAPeko IKASTAROEN ESKAINTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarazkoak eta orokorrak Lankideei ikastaroen berri emango diegu.</li> </ul>			Josu

**HURRENGO BATZORDEA: Apirilak 27, 10:00etan.**



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA			
GAI ZERREDA		Eguna	2023/04/27	Ordua	10:00
DEITUAK		Yolanda, Asier, Maite, Nerea, Bego eta Josu.			
Gaia		Edukia		Arduraduna	
1	BILEREN SEGIMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Jarraipena</b></li> <li>- <b>Taula betetzen gabiltza.</b> Oraingoz lau bileraren neurketa jaso dugu.</li> <li>- Apurka-apurka betetzeko <b>ohitura hartzen joango gara.</b></li> </ul>		Bego/Josu	
2	ZERBITZU HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gure <b>webgunea irekitzen denean, euskaraz</b> irekitzen da zuzenean.</li> <li>- Webgunea zuzenean euskaraz zabaltzen denez, hemendik aurrera <b>jasotzen diren kontsultak neurtuko ditugu.</b> Aurretik jasotakoekin alderatuko ditugu, ea lehenetsiko hizkuntzak eragina neurtzeko.</li> <li>- <b>Hobetzekoak: hizkuntza aukera ezkerrean</b> jartzea eskatuko dugu, bestela Google itzultzailearekin nahasten da.</li> <li>- <b>Solvent-ekin kontratua (hitzarmen kolektiboen aplikazioa):</b> pleguetan ele bitan egon behar dela agertzen da. Ele bitan dago; dena dela, <b>erabiltzen dutenekin kontrastatuko</b> dugu.</li> <li>- Gure <b>hornitzaileen zerrenda ia osatuta</b> dago: Nereak hornitzaileen zerrenda egin du eta ondoan harremana nork duen izendatu du. Nereak bereak bete ditu.</li> </ul>		Nerez/Bego/Josu	
3	EUSKARA SAIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Balorazioa</li> <li>- <b>14 partaide / jardun biko saioa / hiru atal</b></li> </ul> <p>Balorazio ona. Denok parte hartu genuen: batzuek online; beste batzuek aurrez aurre. Jose Mari Donostiatik etorri zen. Oso parte hartzaile denak. Bukaera kaotiko samarra izan zen; oso gustura genbiltzan jolasten, baina gero batzarrak genituen.</p> <p>Hasierako irudiekin oporrak kontatzea ariketa polita izan zen.</p>		Maite/Josu	
4	BAGABILTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara Saioa (iruzkintxo)</li> </ul>		Maite/Josu	



		<ul style="list-style-type: none"><li>- Maiatzaren 18ko formakuntza (laburpena eta argazkiren bat)</li><li>- Zutabea Leirek.</li><li>- Besterik?</li></ul>	
6	MOTIBAZIOA	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Sukaldean kafea hartzen edo bazkaltzen dutenek irakurtzeko edo egiteko</b> zerbait jartzea pentsatu dugu. Gurutzegramak? Hizki-zopak? Asmakizuna? Astero gauza ezberdin bat? <b>Datorren batzorderako forma emango diogu.</b></li></ul>	Maite

**HURRENGO BATZORDEA: Maiatzaren 24an, 10:00etan.**





BILERA		LHK – EUSKARA PLANA			
GAI ZERRENDA		Eguna	2023/05/24	Ordua	10:00
DEITUAK		Yolanda, Asier, Maite, Nerea, Bego eta Josu.			
Gaia		Edukia		Arduraduna	
1	<b>FORMAKUNTZA SAIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Balorazioa</b> Positiboa. Interesgarria eta dinamikoa. Saioan, bakoitzak bere iritzia emateko aukera ahalbidetu zuen.  Labur geratu zen.  Gauza interesgarriak aipatu ziren. Oso dinamikoa izan zen.  Bukaerako zatian batzuk galdu egin ziren; ulermen-kontua.  Agian, formakuntzaren harira, berdintasun batzordea berreskuratu daiteke. Aspaldi bazegoen.</li> </ul>		Denok	
2	<b>BILEREN SEGIMENDUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Jarraipena</b> Azkenaldian batzar asko egiten ari gara.  Segimendua egiteko, ez du zertan egutegian dagoen bilera bat izan; egunean bertan antolatutako bilera izan daiteke.  Azkenaldiko bileretan, euskararen presentzia testimoniala izan da eta asko ez ditugu neurtu. Euskara Batzordeko kideak parte hartzen duten bileretan adi egotea ondo legoke.</li> </ul>		Josu	
3	<b>NEGOZIAZIO BATZORDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera euskaraz egin bada, askotan aktak gaztelaniaz jasotzen dira.  Askotan akta jasotzea zaila da: erabiltzen duten hizkuntza arrotza izan daiteke, online ez da berdindu ulertzen...  Aukera bat da akta gaztelaniaz egin eta gero itzultzea; horrela, ele bitan bidali dezakegu. Josu itzulpenarekin laguntzeko prest dago.</li> </ul>		Josu/ Leire?	
4	<b>WEBGUNEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gure webgunera sartzeko hasierako orria gaztelaniaz jartzea erabaki da (Eusko Jaurlaritzaren Dekretu Proiektuan espresuki aipatzen da gaia)</li> <li>- Dekretua argitaratzen denean euskara lehenestea egitea erabakitzen badugu, lantaldean ondo</li> </ul>		Josu	



		komunikatu behar dugu, gaizki-ulerturik ez egoteko.	
5	<b>BAGABILTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara Saioa (iruzkintxo)</li> <li>- Maiatzaren 18ko formakuntza (laburpena eta argazkiren bat)</li> <li>- Zutaba nork (Leirerena, eginda)</li> <li>- Gipuzkoako metalaren akordioa</li> </ul>	Maite/Josu
6	<b>IDEIA SUKALDERAKO</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Denborapasak. Hizki-zopekin hasiko gara.</li> </ul>	Denok
7	<b>OPORRETAN, ZER EGIN?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pare bat ideia: Oporretan gaudela, gure kokapena asmatu (waxap-taldea)</li> <li>Opor ostean, igarkizun eran planteatu</li> <li>- Euskara-saioan argazkia erakutsi eta besteek asmatu.</li> <li>Hurrengo batzordean zehaztuko dugu.</li> </ul>	Denok
8	<b>BATZORDEKIDE-ALDAKETA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Begok bere ordeztu beste lankide bat sartzea proposatu du.</li> <li>- Beste egoitzetako lankideak batzordean egotea oso interesgarria litzateke.</li> <li>- Ikasturte berriarekin batera erabakiko dugu nola eta zer egin.</li> </ul>	Bego

**HURRENGO BATZORDEA: Uztailak 4. 10:00etan.**

BILERA		LHK – EUSKARA PLANA			
<b>GAI ZERRENDA</b>		<b>Eguna</b>	2023/07/04	<b>Ordua</b>	10:00
<b>DEITUAK</b>		Yolanda, Asier, Maite, Nerea, Bego eta Josu.			
Gaia		Edukia		Arduraduna	
1	<b>BIKAIN SIMULAZIOAREN HASIERA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Elkarrizketak langileei.</b></li> </ul> Urriaren 5eko euskara-saioan emaitza aurkeztuko dugu.		Maite/Josu	
2	<b>LAKUAKO BILEREN ETA BESTELAKOEN BALANTZEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Guri eragiten digutenak (Dekretu berria, KEMEN, BIKAIN eta abar).</b></li> </ul> XEDERA: Gasteizen bi batzarretan parte hartu du Josuk, beste erakunde batzuetako kideekin batera. Hurrengo euskara-saioan honen berri emango digu. KEMEN: aldaketen berri euskara-saioan emango dugu. DEKRETUA: txosten teknikoa egitea eskatu digute.		Josu	
3	<b>SUKALDERAKO IDEIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Letra-zopa egin eta gero, hurrengoa?</b></li> </ul> Letra-zopak arrakasta izan zuen. Enigmak jarriko ditugu.		Denok	
4	<b>OPORRETAN, ZER EGIN?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Jarduera definitu egin behar da.</b></li> </ul> ARGAZKI LEHIAKETA egingo dugu berriro. Arrakasta handia izan zuen! Uztaila erdialdera zabalduko dugu eta irailean gogoraraziko dugu.		Josu	

**HURRENGO BATZORDEA: Irailak 28, 10:00etan.**



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA			
GAI ZERRENDA		Eguna	2023/09/28	Ordua	10:00
DEITUAK		Yolanda, Asier, Maite, Nerea, Bego eta Josu.			
Gaia		Edukia		Arduraduna	
1	<b>EUSKARA SAIOAREN PRESTAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>BIKAIN simulazioaren balantzea.</b> Bikain simulazioaren emaitzen aurkezpena egingo dugu.</li> <li>- <b>PLANGINTZALDI BERRIA (Josuren bilerak).</b> Josuk parte hartu duen saioen laburpena egingo du.</li> <li>- <b>ARGAZKI LEHIAKETA (gaur azken eguna bozkatzeko)</b> Argazkiak erakutsi eta norenak diren asmatuko dugu. Irabazlea bukaeran iragarriko dugu. Saria: argazki irabazlea inprimatu eta marko baten jarriko dugu. Naroa lankide berria Donostitik konektatuko da. Bego ere han egongo da.</li> </ul>		Maite/Josu	
2	<b>HURRENGO URRATSAK, GURE PLANEAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Zer tokatzen da orain?</b></li> <li>• Errotulazioaren ikuskapena</li> <li>• Artikulu bat euskaraz argitaratu</li> <li>• Ahozko harrerako neurketa</li> <li>• Trebakuntza-saio bat (sortze-hizkuntza lantzekoa?)</li> <li>• Euskararen eguna / lehiaketa / euskara saioa</li> </ul>		Maite/Josu	
3	<b>HURRENGO BULETINA, URRIAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Edukiak: EUSKARA SAIOAren balantzea + zutabea (tartean, Argazki Lehiaketako irabazlearen argazkia).</b> Buletina EUSKARA SAIOko edukiekin osatuko dugu, gai interesgarri asko dago. Zutabea Begok egingo du. Urteko 3.alea izango da. Urriaren amaierarako.</li> </ul>		Josu	
4	<b>SUKALDERAKO IDEIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>ENIGMEKIN gabiltza</b></li> </ul>		Josu	



		Gaur 3.enigma jarri dugu. Ekimenak harrera ona izan du.	
5	<b>Langile berria Donostian</b>	- <b>Oso itxura ona hartzen diogu.</b> Naroa. Begok harrera egingo dio Donostian eta Josuk ere berarekin batzar bat egingo du. Agian Josu eta Asier ere Donostiara joango dira egunen baten.	Bego/Josu
6	<b>Euskara Batzordea</b>	- <b>Aldaketarik/Errotaziorik taldean?</b> Begok egoitzetakoak ere parte hartzea proposatu du. Printzipioz, urte bukaerara arte Begok batzordean jarraituko du. Urte berriarekin erabakiko dugu beste norbaiti gonbidapena luzatu edo ez.	Bego/Josu

**HURRENGO BATZORDEA: Urriak 26, 10:00etan.**



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA				
GAI ZERREDA		Eguna	2023/10/26	Ordua	10:00	
DEITUAK		Asier, Maite, Nerea, Bego eta Josu.				
Gaia		Edukia		Arduraduna		
1	EUSKARA SAIOAREN BALORAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>BIKAIN</b> simulazioaren emaitzak ikusita, Plan Estrategiko berria lantzen dugunean, baloratuko dugu aurkeztea merezi duen, eta merezi badu, noiz aurkeztu. Plan Estrategiko berria 2024an landuko dugu.</li> <li>- Presidente berriari Bikain zer den azalduko diogu.</li> <li>- Josuk online saio baten parte hartu zuen. Saioan Bikain-en aldaketak azaldu zizkiguten.</li> <li>- <b>ARGAZKI LEHIAKETA:</b> erantzun ona. Donostiakoak ezin izan zuten ondo entzun; Bilbokoek eta Gasteizkoek saioa ondo jarraitu zuten.</li> </ul>			Denok	
2	HURRENGO URRATSAK, GURE PLANEAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>NOIZ?</b></li> <li>• Errotulazioaren ikuskapena (<b>AZAROAN</b>)</li> <li>• Artikulu bat euskaraz argitaratu (<b>Tomasek BERRIAN?. Josuk Yolandarekin hitz egingo du</b>)</li> <li>• Ahozko harrerako neurketa (<b>AZAROKO LEHENENGO ASTEAN. 6tik 10era egingo dugu. Bego eta Mari Jose Ruedari ere esango diegu</b>)</li> <li>• Trebakuntza-saioa bat (<b>sortze-hizkuntzari buruzkoa, 2024an egingo dugu, urtarrileko batzordean adostuko dugu noiz egin.</b>)</li> <li>• Euskararen eguna / lehiaketa / euskara saioa (<b>Edukia: Adimen Artifizialari buruzko Teknopoliseko saio interesgarri bat dago. Saioa ikusi eta gero Adimen Artifizialarekin jolastu genezake; irudiak sortu... Abenduak 14, 12:00etan</b>)</li> </ul>			Denok	
3	BULETINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eginda. Batzordean erakutsi dugu. Aste honetan zabalduko dugu.</li> </ul>			Denok	
4	SUKALDERAKO IDEIAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>ENIGMAK? EUSKARAZKO IGARKIZUNAK? TXISTEAK EUSKARAZ?</b></li> </ul> <p>Sukaldean jartzeko zerbait okurritzen bazaigu, Josuri bidali. <b>Proposamena: errezeta bat jarri eta osagai bat kendu, zer falta da?</b></p>			Denok	



5	<b>Langile berria Donostian</b>	- Josu eta Asierrek Donostiara bisita egin zuten urriaren 17an. Bisita eraginkorra eta positiboa izan zen.	Asier/Josu
6	<b>Batzordekideak</b>	- Donostiako eta Gasteizko egoitzetako lankideei proposatu zaie 2024an Euskara Batzordean parte hartzea. Hurrengo batzordean gaia lantzen jarraituko dugu.	
7	<b>Profesionalen zerrenda</b>	- Bitartekariak eta arbitroen zerrenda eguneratzen ari gara, eta euskalduntzen ari da. Profilak identifikatuko ditugu, telefonoz deitu egingo diegu, eta gero zerrenda eguneratua lankide guztiei bidaliko diegu, jakinaren gainean egoteko.	

**HURRENGO BATZORDEA: Azaroak 28, 10:00etan.**



BILERA		LHK – EUSKARA PLANA				
GAI ZERRENDA		Eguna	2023/11/28	Ordua	10:00	
DEITUAK		Asier, Maite, Nerea, Bego eta Josu.				
Gaia		Edukia		Arduraduna		
1	EUSKARA SAIOAREN EDUKIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>URTEKO DATUAK</b> (harrerako neurketa, profesionalak, aplikatzeko hitzarmenarenak, zirkularrak...)</li> <li>- <b>BIDEOA</b></li> <li>- <b>ARIKETA/JOLAS PRAKTIKOA</b></li> </ul>			Maite/Josu	
2	HURRENGO URRATSAK, GURE PLANEAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>NOIZ?</b></li> <li>• Errotulazioaren ikuskapena (<b>AZAROAN</b>) momentu oro egiten dugu.</li> <li>• Artikulu bat euskaraz argitaratu. <b>Tomasek BERRIAN?</b> Ez dugu egoki ikusten. Beste aukera batzuk baloratuko ditugu.</li> <li>• Trebakuntza-saioa bat (<b>sortze-hizkuntzari buruzkoa izango da, 2024an egingo dugu eta urtarrileko batzordean adostuko dugu noiz egin.</b>) Josuk prestatuko du.</li> <li>• 2024an Plan Estrategiko berria. Datorren urtean landuko dugu.</li> </ul>			Denok	
3	BULETINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Abenduko alean EUSKARA SAIOko edukia sartuko dugu</li> <li>Zutabea Naroak egingo du.</li> <li>- Abenduaren 18ko asterako egiten saiatuko gara.</li> </ul>			Maite/Josu	
4	SUKALDERAKO IDEIAK	Errezeta bat jarriko dugu eta osagai bat kenduko dugu, asmatzeko. Urtarrilean jarriko dugu.			Maite/Josu	
5	Batzordekideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Donostiako eta Gasteizko egoitzetako lankideei proposatu zaie 2024an Euskara Batzordean parte hartzea. Yolanda Blanco eta Mari Joserekin hitz egin dugu, eta Yolanda Blanco izango da batzordekide berria. Etxetik lan egiten duenean etortzeko aukera izango du.</li> </ul>			Denok	
6	Profesionalen zerrenda	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eguneratuta dago, eta aurreko urteekin konparatuz, euskaldun-kopurua dezente handitu da.</li> </ul>			Denok	



7	<b>Datorren urteko kontratua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontratu txikia, urtero bezala.</li> <li>- Elhuyarrekin hitzarmena dugu? Hau kontsultatu behar dugu.</li> </ul>	Maite/Nerea/ Josu
8	<b>IVAPeko ikastaroak (deialdi osagarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Otsailetik ekainera bitartekoa (hizkuntza-eskakizunak). Aukera bakarra bost ordukoak egitea da, urrian matrikulatuta egon ezean.</li> </ul>	Josu
9	<b>Josuk Emiliarekin hitz egin du</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ibilbide historikoa egin dio. Irizpideen berri eman dio.</li> </ul>	Josu

**HURRENGO BATZORDEA: urtarrilaren 25ean, 10:00etan (behin-behineko data).**